

## Kuboko motxailea

Kubo errotak urte asko daramatza ixilik erreka ondoan.

Izen berezi hau XV. mendeko eskriturretan ere aipatzen da eta errotaren barne egiturako elementu batetik dator: 'uretzea' (ur saltoa ematen den gunea), gaztelaraz 'kubo' esaten zaio.

Badago istorio txiki bat Kubo errotan gertatua orain dela urte asko. 1635. urtean, Jaurerriko Teniente Generalaren bisitak izan zituzten Munitibarren. Kubo errotan orduan maizter bezala Marina Belaustegi andrea zegoen. 'Pixu, uruntoki eta abar ondo zituela erantzun ondoren, eta txarrik eta hegaztirik ere ez zeukala esan (errotetan galerazita egoten ziren), nun agertzen den ollo bat tresna artean, andrea pekatari biurtzen' (Zubikarai eta Eiguren)

XX. mendean Alzaa sendiak okupatzen zuen errota gerra garairaino. Hutsik gelditu zen etxea. Bertatik pasatzen ziren motxaileak aprobetxatzen zuten gau pare bat edo gehiago igarotzeko. Motxaile eta ijitoak gehitu ziren nabari paraje hauetan eta herrian beldurra zabaldu zen.

Baina bada kasu bat Beatriz Gerrikabeitia Munitibartarrak, Kubo errotako jabeak, maitekiro gogoratzen duena: 'Maria izeneko motxaile bat denbora luzez gelditu zen Kuboko errotan. Herriko jendeak oso ondo hartu zuen, janaria eramaten genion...Hori bai! Atean utzi eta ozpa!

Gizarajoa, zorritz beteta zegoen eta bere itxuragatik beldurra ematen zigun herriko umeoi. Udaletxearen partetik ere laguntza jaso zuen'.

Berotzeko sua batean baserriko atearekin, bestean lehioko egurrarekin... gutxinaka-gutxinaka etxea uzten joan zen. Zorigaitzeko egun batean etxeak sua hartu eta bertan hil zen bera ere.

Gaur egun antzeman daitekeen egitura gelditu zen tente; Kubo errota (baserria guztiz erori zen)



1961. urtean Kubo baserria / Argazkia: Lutxi Alzaa